

KONTROL MOZIOA

Udalaren eta langileen ordezkartzaren arteko Negoziazio Kolektiboarekiko errespetua dela-eta

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2016eko urtarrilaren 14an Zerbitzu Orokorretako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2015ari dagokion akordioa izan zen aurreko Udal Gobernuaren eta langileen ordezkartzaren artean hartutakoa, zeinaren arabera, 2015erako udal langileei 1.325.951,74 euroko diru-kopuru globala ordainduko zitzaien produktibitate gisa, negoziazio kolektiboaren bitartez adosten zen moduan.

Udal Gobernu berriak hainbat momentutan aitortu du udal kontuak argi eta sano aurkitu dituela, eta, oro har, Udala egoera ekonomiko onean dagoela. Jakina da itxiera ekonomiko ona espero dela. Halaber, Gobernuak urte erdia izan du zeuden aurreikuspenei eusteko, eta, kasuan kasuan, haiek hobetzeko, horrelako beharra susmatuz gero.

Akordio horrek, aurreko legegintzaldian onartu arren, bere garaian udal talde guztien onespina jaso zuen, akordioa bera udal erakunde eta organismoetako organoetara trasladoa egin zenean beren adostasuna adierazi baitzuten. Bigarren ordainketarekin izaniko arazoengatik inguruan

interpelatuta, zinegotzi ordezkariak akordioak betetzeko konpromisoa agertu zuen. Eta beranduago bada ere, hala egin zuen abuztuko zatia irailean ordainduz, baina akordioaren azken zatia, hain zuzen ere abenduari zegokiona, ez du bete.

Ondoren irakurri dugu bestelako arrazoiak ere egon daitezkeela, hala nola ordainketa mota ez datorrela bat irizpide politiko berriekin. Horren arabera, ordainketa lineala ez da Gobernu Berriaren gustukoa, Giza Baliabideetako zinegotzi ordezkariak Udala gehiegi proletarizatzen ari zela baitzioen.

Arrazoiak arrazoi, langileek oraindik ez dute kobratu eta honetaz interpelatuta, Zerbitzu Orokorretako Batzordean, zinegotzi ordezkariak zioen behin eta berriro akordioa bete duela. Negoziazio kolektiboari zor zaion errespetua oinarri demokratiko garrantzitsua izanik, ezin da ulertu berau ez betetzea.

Akordioa sinatu zuten zein sinatu ez zuten sindikatuek erreklamatu dute hitzartutakoa betetzeko eta zorra ordaintzeko. Laburtuz, erabateko adostasuna dago, gakoa borondate politikoan dagoela. Iraganak ere horrela frogatu du.

Benetako borondate politikoa emaitzetan gauzatzen dela denok iritzita, dirua egonda aitortua, formulak bilatu eta aurkitu daitezke negoziatu dena errespetatu nahi denean. Beraz, Udal Gobernuak langileekin hartu zen akordioa ez betetzeko hautua egin duela ulertu behar da.

Horiek horrela, hauxe da aurkeztutako

KONTROL MOZIOA:

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - Tel. 943481027 - -
20003 Donostia

eh_bildu@donostia.eus

3/3

.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari, negoziazio kolektiboaren ondorioz, langileen ordezkariarekin hartutako akordioak errespetatu dituzala.

Donostian, 2016ko urtarrilaren 22an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH BILDU udal taldeko zinegotzia